

# Erdizkako arrakasta aurtengo Gasteizko Antzerkialdian

*Principalek ikusle asko izan du, beste antzokiek ez bezala*

**G**azi-goza baloratu dute Gasteizko Antzerki Jaialdiaren aurtengo ekitaldia, Principal antzokiak hartutako egitarau nagusiak nahiz haurrentzakoak publiko arrakasta izan badu ere, porrot egin baitu auzoetan programatutakoak. Orotara 33.604 ikusle izan dira 47 ikuskaritan.



Porpol taldeak Bernardo Atzagaren *Xolak badu lehoien berri* lana aurkeztu du Gasteizko Antzerki Jaialdian.

JOSEBA OLALDE

Luis Karlos Garcia / Gasteiz

ALDE itzela dago Principal antzokiko publiko kopuruaren eta Beñat Etxepare, Garcia Lorca nahiz Ipar-Arriagako antzokiaren artean: Principalen 32.967 ikusle bildu dira, eta, gainera, batez besteko okupazioa %82koa izan da programa nagusian, eta %85 haurrentzako sailean; auzoetako hiru aretoetan, berriz, ez dira heldu 650 lagunera.

Arantza Zenarruzabeitia Gasteizko Kultura zinegotziak, amaitu berri den ekitaldia baloratzean, ez zuen ezkatatu auzoetako jaialdi txikiak huts egin dutela: «Arrakastarik ez da izan antzoki periferikoetan, baina egia da aurtentzako berrikuntza batzuk zeudela».

Izan ere, berria zen festibala Garcia Lorca eta Ipar-Arriagara zabaltzea, aurtentzako antzerkiaren eta Beñat Etxepare bano ez zelako egiten. Nolanahi ere,

Zenarruzabeitia adierazi zuen datozen ekitaldietan ere auzoetan programatzen jarraitzeko asmoa dagoela, ea horrela lortzen den publikoaren eskaera piztea.

Gasteizko Antzerkialdiko zenbaki orokor batzuk honako hauek dira: programa nagusiak 29 obra eskaini ditu, eta 11 haurrentzakoak eta 40 horietako hamarretan sarrera guztiak agortu egin ziren —tartean Tanttakaren *Aitaren jokoak* nahiz Pörpölen *Xolak badu lehoien berri* euskarazko ikuskarrietan edo Anabel Alonso aktorearenean—.

Programa nagusiko ikusle kopurua, berriz, iazkoa baino txikiagoa izan da —ia 5.000 gutxiago aurtentzako—, baina aintzat hartu behar da 1997an 53 emanaldi egin zirela eta 1998koan 45. Haurrentzakoan, ordea, iaz baino 250 ikusle gehiago izan dira, 1997an baino funtzio bat gehiago programatzei esker.

«Publiko guztiak erakartzea» da helburu • «Ekitaldi kalitatezkoa, homoginoa eta eklektikoa izan da, eta gaur egun dauden ikuskarrietako onena nahiz deigarriena biltzen saiatu da», adierazi zuten Udaleko Kultura arduradunek balorazio artistikoaz ari zirela. Hala, aurrerantzean abian jarri beharreko negu, udaberri nahiz udako denboraldiei begira «onena, arrakastatsua eta izenik ospetsuenak» lortzeko asmoa agertu dute, «publiko guzti-guztiak erakarri ahal izateko».

Aurtengo aurrekontua 66 milioi pezetatik gorakoa izan da (265.000 libera). Diruaren erdia baino gehiago lortu da sarreraren salmentaz, eta gainera Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Diputazioaren, Gasteizko Udaleren nahiz Vital Kutxa Fundazioaren dirulaguntzen bidez. Gastuetan, berriz, ia %90 konpainiei ordaintzeko erabili da. X

## laburrean

### ■ Abian dira Barakaldo Antzokiaren Eguberrietako ekitaldiak

ATZO ekin zion Barakaldo Antzokiak Eguberrietarako prestatu duen egitarauaren ekitaldiak aurkezteari. Ohi bezala, aurtengoan ere haurrentzako film emanaldiak, umorea eta kontzertuak ditu antzokiak bere eskaintzan. Egitarauari atzo eman zitzaion hasiera, Georgiako Mass Choir taldeak emandako kontzertuarekin. Talde honek, besteak beste, Whitney Houstonekin ere egin du lan. Kontzertuez gainera Barakaldo Antzokiaren egitarauak Lourvier's taldearen umorezko antzezlan ere iragartzen du asteburu honetarako, Enrique Diaz Radaren zuzendaritzapean. Egitarauari zinemak emango dio amaiera Urteko azken hiru egunetan, haurrentzako filmak izango baitira ikusgai antzokian: *Ahmed, principe de la Alhambra*; *Paulia, el loro boz*; *cazas* eta *La espada mágica. En busca de Camelot*. X

### ■ Artxiboak berreskuratzeko laguntzak eman ditu Jaurlaritzak

IRAGAN asteko bileran, Loiolako santutegiko artxiboaren inventarioa bultzatzea eta laguntzea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak. Laguntza, santutegiko artxiboetan dauden fondoen inventarioa eta deskripzioa egiteko izango da laster batean, ikertzaileen eta interesadunen bilaketa lanak eta ikerketak errazteko asmoz. Halaber Jaurlaritzak Erein argitaletxearekin eta Elkarlanean disketxearekin aparteko laguntza ematea ere erabaki zuen, 1997ko ekainean izandako uholdeetan kaltetutako artxiboaren berreskuraketan laguntzeko. Erein argitaletxeak 1.500.000 pezeta (60.000 libera) jasoko ditu, eta Elkarlanean disketxeak, berriz, 2.300.000 pezeta (92.000 libera). X

### ■ Tony Pajaro filipinarraren margoak ikusgai daude Donostian

GIPUZKOAKO Peritu eta Industri Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak antolatutako, iragan astean Tony D. Pajaro margolari filipinarrak azken hogeita-bi urteetako ibilbide artistikoa aztertu zuen hitzaldi batean. Hitzaldiarekin batera, Pajaroren margoen erakusketak zabaldu zen. Pajaro, hogeita-bi urtez Donostian bizi izan da, eta margolaritza ikastaroak eman ditu Gipuzkoako hainbat herritan. Orain, GPIITEOK Zurriola hiribidean duen eskolan Pajaro beraren margoak daude ikusgai. Euskal natura eta Filipinetako landaretza erakusten duten margoak astelehenetik ostiralera daude erakusgai arratsaldeko Getatik Setara. X

### ■ Giorgio Strehler zena omentzeko kontzertua egingo dute Milanen

BIHAR gauean Milango Teatro alla scala antzokian egingo den Gabonetako Kontzertua duela urtebete hil zen Giorgio Strehler-i eskainitako diote. Strehler antzerki zuzendari ezaguna eta Milango Piccolo Teatro antzokiaren sortzailea izan zen. Ricardo Muti orkestra zuzendariak aukeratu dituen obren artean Mozarten *Don Giovanni* eta XVIII. Mendeko musika sakroa izango dira. Anna Caterina Antonacci, Andrea Rost eta Angelika Kirschschrager abeslariak hartuko dute parte kontzertuan. X

### ■ Jazzaren maisuen kontzertu batekin amaitu da Habanako Nazioarteko Jaialdia

HABANAKO Nazioarteko Jazz Jaialdia astelehen gauean bukatu zen Chucho Valdes piano jolearen gidaritzapean Nazional antzokian egindako kontzertu ikusgarriarekin. Hala, Michel Camilo piano jole dominikarrak, Roy Hardgrove tronpetistak, Jack de Jonethe bateriarik, John Benitez bajistak, David Sanchez saxoak, Danilo Periz pianamarrak eta Orlando Maracas Valle kubatarrik kontzertu ikusgarria eman zuten Chucho Valdes antolatzailearen gidaritzapean. Aurtentzako Jaialdian Max Roach 80 urteko batera jole estatu batuarrekin omendu du Habanako Nazioarteko Jazz Jaialdiak. X

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

TECKEL txakurra (5 hilabete)  
ostiralean desagertua,  
Ergobia-Oialume inguruan  
Albaitari-tratamenduarekin  
Deitu gaez: 943 557933  
SARITUKO DA

31 x 33 mm  
MODULO  
(Iparraldea)

Eguna: 88 l.  
Astea (6 egun): 82 l.  
2 aste (12 egun): 69 l.  
Hilabetea (24 egun): 55 l.

31 x 33 mm

31 x 33  
MODULO  
(Edizio orokorra)

Eguna: 2.900  
Astea (6 egun): 2.200  
2 aste (12 egun): 2.000  
Hilabetea: (24 egun): 1.400

IRAGARKI  
MERKEAK

31 x 33 mm

31 x 33  
MODULO  
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 2.100  
Astea (6 egun): 1.800  
2 aste (12 egun): 1.500  
Hilabetea: (24 egun): 1.100

NAIROBITARRA

banoa

\* Gehienez 20 laguneko taldeak  
Tel.: 94 424 00 11 - Faxe: 94 423 20 39

Abenduaren 26tik - urtarrilaren 6ra.  
ALMERIA - CAZORLA  
Natura, penintsula hegoaldean.

✓ Bizikletak eramateko aukera  
✓ Leku batzuk badaude oraindik